

Urtekaria

Urteko gertakari eta albiste nagusien errepasoa
Berriketan aldizkariko lerroburuetan

> Urtarrila



- Basque Teameko urteko (2023) kirolari onenen artean aukeratu zuten Amagoia Arrieta.
- Euripean baina giro onean egin zen Zoro Feria.
- Mikel Sotok irabazi zuen XVIII. Tene Mujika beka.

- Aitor Mimenza eta Elena Silvestre nagusitu ziren X. Manuel Mateos Memorialean.
- Debako Udalak 9.946.508 euroko aurrekontua onartu zuen 2024rako.
- Webgune berritua estreinatu zuen Berriketan herri komunikabideak.

- Osasun etxeetan maskararen erabilerak derrigorrezkoa izateari utzi zion.
- Kaldereroak, inauteriak... Kolorez eta umore onez jantzitako egunak.
- Gaikako bilketaren tasak behera egin zuen Debabarrenean 2023an.

- Debako baraja legendarioa; herriko kondairak karta-sorta batean jasota.
- Elizburuko etxebizitza tasatuak eraikitzen hasi ziren.
- Datozen urteetarako oinarriak ezarriko dituen Euskara Plana egiteko prozesua abiatu zuen udalak.

> Otsaila



> Martxoa



- Debako Musika Bandak bazkideak omendu zituen.
- AECCren Debako Batzordea: "Egia esan, oso harro gaude herritarren erantzunarekin".
- Herri Urratserako *Hor gaude* kanta sortu zuen Neomak taldeak.

- Debako Gaztelekuaren taldeak bigarren talde handienaren saria jaso zuen Lilatoian.
- 31 eragilek eraman zuten Korrikaren lekukoa Deban.
- Kardantxulo Eguna ospatu zuten, Itziarko Gazte Asanbladaren ekimenez.

- Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Ez gara jaitsiko!* ikuskizuna aurkeztu zuten Itziarren.
- 100 bat gazte batu ziren Gaztelekuak antolatutako udaberriko oporraldira.
- Amagoia Arrieta bigarren geratu zen Zagrebeko World Boccia Challengean.

- Olatu politik, eguraldi ona eta lagun arteko giroa Zurrumbilo Eguneke protagonista nagusiak.
- Amillagakoa itxi eta Artzabalgo hilerrirako lekualdaketari uda ostean ekingo ziola iragarri zuen udalak.
- EH Bildu nagusitu zen Deban eta eskualdean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.

> Apirila



> Maiatza



• Herriko zientzialariak eta beren lana protagonista *Baso bete zientzia* jardunaldietan.

• Guillermo Andonegi, Garbiñe Iriondo, Aitor Oñederra eta Goaz taldea Ostolaza Sarien jabe.

• Altza Burua Deba-Itziar taldeak antolatutako solasaldiak abian.

• Etxean zegoen emakumea hil zuen tiroa ehiza eremutik kanpo egin zutela baieztatu zuten.

• Maiatzaren 24an hasi zen 37. Antzerki Asteko egitaraua.

• Udal gobernuak 2023-2027 agintaldirako Gobernu Plana aurkeztu zuen.

• Aldarrikapena eta jai giroa Deba-Palestinaren Elkartasun Egunean.

• Manex Astigarragak laugarren postua eskuratu zuen Algaraka Bakarrizketa Lehiaketan.

• Herritar ugari hurbildu ziren Zaintza Ekosistemari buruzko aurkezpen ekitaldira.

• Ehundik gora dantzari Kulunkaren ikasturte amaierako jaialdian.

• Mural berria Sokagin kalean.

• Ekitaldiz beteriko asteak, Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez.

• Atsekabea eragin zuen Salvador Martinez dultzaineroaren heriotzak.

> Ekaina



> Uztaila



• 27 kultur ekimen antolatu ziren Gure Giro programazioaren baitan.

• Iñaki Sagarna: "Hemingwayren kasuan ere, kondairek benetako istorioa estaltzen dute".

• GFAko Diputatuen Kontseiluak bilkura ibiltaria egin zuen Deban.

• Aitzuri Abesbatza: "Harro gaude 30 urteotan egin dugun lanaz".

• Emaizta onez betetako denboraldia osatu du Jon Osa igerilari debarrak.

• 15 urtean, banketxeen bulegoen kopurua erdira jaitsi da eskualdean.

• Itziarren Kopraixak ospatu zituzten hilaren 2tik 7ra bitartean, eta Deban San Roke jaiak izan ziren hilaren 14tik 18ra.

• 150 kirolari Itziar Trail mendi lasterketaren VII. edizioan.

• Jendetza bildu zen Ibil Bedi musika talde nafarrak zumardiko karpan eman zuen kontzertuan.

• *Susterrak* arte erakusketa ikusgai klaustroan, uztailean eta abuztuan.

• Caritasen elkartasun tonbola zabalik berriz ere Ostolaza kalean.

• Punta-puntako lau emanaldi Udako Kontzertuen 41. edizioan.

• Kafe kapsulak jasotzeko 11 edukiontzi berri eskualdean.

> Abuztua



> Iraila



- Michael Granberryren *Les bêtes* filma nagusitu zen Animadeba Nazioarteko Animazio Zinemaldian.
- *Berriketan.eus*-en Udako Argazki Lehiaketa Itsaso Aramendik eta Mattin Urbietak irabazi zuten.
- Eduardo Alsasua gasteiztarra garaile 55. Kaleko margo sariketan.

- Azken ia hogeit urteetako marea bizienak izan ziren euskal kostaldean.
- Antton Telleriaren *NiNiNi* umorezko bakarriketaren aurrestreinaldia Kultur Elkartean.
- Itziarren egin zuten eskualdeko enpresa txiki eta ertainen arteko berrikuntza dinamizatzeko topaketa.

- 23 bikote lehiari Nesken Binakako XII. Pala Txapelketan.

- Esterilizazio-zentral berritzailea jarri zuten martxan Mendaroko Ospitalean.

- Emakume helduen taldea sortzea lortu zuen Debasket Saskibalo Klubak, aspaldiko helburua beteta.

- Süneren *Txitxarro* abestia Top Gaztea zerrendaren gorenean.

- Realeko lau jokalarari ohi izan ziren Arbil Elkarte Sozialak antolatutako mahai-inguruan.

- Arimen Gaua ospatzeko egitarau bateratua prestatu zuten lehenbizikoz Deban.

> Urria



> Azaroa



- 175 postu eta giro paregabea XXIX. Itziarko Perian.

- Valentziara eramateko material bilketak Arbil elkartearen eta Debako Gazte Asanbladaren ekimenez.

- 50. urteurrena ospatu zuen Goaz Antzerki Taldeak.

- *Berriketan* herri aldizkariak 300. zenbakia kaleratu zuen.

- Bitor Garitaonandiak hirugarren postua lortu zuen Open LPA Surf City Txapelketan.

- Macba fundazioaren saria irabazi zuen Ibon Aranberri artistak.

- Haur mailako emakumeen saskibalo selekzioek lagunarteko partidak jokatu zituzten Deban.

- Avanza (Pesa) autobus enpresako langileak berriz greban, lan hitzarmena berritzea eskatzeko.

- Idoia Asurmendi musikari aramaioarrak kontzertua eman zuen Kultur Elkartean.

- Debako Udalak jendaurrean aurkeztu zuen 2024-2034 Euskararen Plan Estrategikoa.

- Euskara ardatz hartuta, hemezortzi jarduerari antolatu zituzten Euskeraz Bagera zikloaren baitan.

- Mitxelena ahizpak eta Salegi-Albizu ama-alabak nagusitu ziren Nesken XII. Pala Txapelketan.

> Abendua

